

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Ijitoen komunitateak Barcina Lehendakariari apiril hau ijito-kulturaren hilabetea ospatzeko antolatutako ekintzak aurkeztu dizkio

Nafarroako hainbat kolektibotako bederatzi emakume ijito izan dira topaketan

Jueves, 25 de abril de 2013

Foru Komunitateko emakume ijitoen kolektibo batek Nafarroako Lehendakari Barcina Lehendakariari apiril hau ijito-kulturaren hilabetea ospatzeko [ekintzen programa](#) aurkeztu zion atzo.

Hilabete guztian ekintzak izango diren ekimena asteburu honetan amaituko da, larunbatean, hilak 27, Iruñeko zezen-plazan egingo den adiskidantzako bazkari batekin eta igandean, hilak 28, 13:00ean San Lorenzoko parrokian (Iruña) Sabicasen omenez egindo den meza flamenkoarekin.

Programak Ijitoen Herriaren Nazioarteko Eguna ospatzen du (apirilak 8), Agustín Castellón gitarra-jole nafarraren heriotza, Sabicas goitizenez ezaguna zena (apirilak 14), eta Ijitoen Komunitatearen Eguna, apirilaren 27 an ospatzen dena Nafarroako Blanca andrea erreginak 1435ean Erriberriko gazteluan komunitate ijitoari egin zion harrera gogoratuz.

Emakume ijitoen topaketa

Emakume ijitoen topaketa `Apirila, ijitoen kulturaren hilabetea´ programaren ohiko ekintzetako bat da. Ijito-kulturaren egoerari buruz biztanleak sentsibilizatzea du xede eta, bereziki, emakumearen egoera, kultura horretako funtsezko zutabetzat jotzen dena, bai eta haiek egungo garaietako hurbil daitezen erraztea ere.

Topaketan Gaz Kalo federazioko bederatzi emakume izan ziren eta hari lotutako sei erakundeetakoak: Zarrakazteluko Sikaven edo Drom; Lizarrako Ker Kali; Iruñeko Romania Rromaní; San Adriango Lacho Drom; Zangozako Romi; eta Tafallako Sinando Kali.

Topaketa zela eta, emakumeek Barcina Lehendakariaren jarduera instituzionala ezagutu zuten eta Nafarroako Jauregiko gela nagusiak bisitatu zituzten, eta bertan, hurrenez hurren, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko nahiz Hezkuntzako Javier Morrás eta José Iribasen, agurra jaso



Barcina Lehendakaria, Morrás eta Iribas kontseilariekin eta zenbait emakume ijitorekin.

zuten.